



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2018/19 Denboraldia

5. ZK. DUN ZIRKULARRA

LEHIAKETAKO EPAILE BAKARRARI, DIZIPLINA BATZORDEARI ETA GORAJOTZE BATZORDEARI ALEGAZIOAK AURKEZTEA

Beste denboraldi bat hastekoa dela-eta, ondoren, klubek halakoetan bete beharreko arauak zehaztuko ditugu:

1.- Arbitroak, edozein arrazoi tarteko, **AKTA** aurkezten ez badu, partida amaituta, akta jaso ahal izateko, klubak federazio honekin harremanetan jarri behar du, aktari egoki iritzitako alegazioak arauzko epean aurkeztu ahal izateko xedez.

2.- Dagokion diziplina organoari alegazioak aurkeztu nahi dizkieten klubek organoko idazkaritzari jakinarazi behar diote, **partida hori jokatu denetik bigarren laneguneko hamalauak baino lehen nazional eremuko mailetan eta egun berberako hamazortziak baino lehenago euskal eremuetarako**. Alegazioei klubak egoki iritzitako beste froga-bideak erantsi behar zaizkio, frogagarri gisa.

3.- Azkenik, gogora ekarri behar dugu **Gorajotze Batzordeari ezin aurkeztuko zaizkiola**, froga agiri edo bide gisa, eskueran eduki arren dagokion Epaille Bakarrarekin edo Diziplina Batzordearekin baliatu ez zirenak.

4.- Gorajotze Batzordeari bidaltzen diren alegazioak, apelacion@eff-fvf.eus posta elektronikora bidali behar dira. **Idatzia klubaren zigiluarekin eta Presidentearen edo Idazkariaren sinadurarekin bidali behar da.**

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2018ko abuztuaren 2an

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General